

Harriaren bidea



Irailak 28 , larunbata
Erreserbak: 945 255135



Ezin dugu Santa Maria Katedrala ulertu bere ingurunearekin daukan harremana kontuan hartu gabe. Ajarte, Elgea, Olarizu eta Arrigorrista bezalako tokietatik ekarritako harriak biltzen ditu, non oraindik harrobi hauen hondakinak ikus daitezkeen. Harriak atera eta garraiatzeko herrixkak sortu ziren baita gurdi bideak eraiki ere. Izan ere, katedrala eraikitze-prozesuak gure lurraldea moldatu du. Ibilbideak katedralak Arabarekin daukan lotura agerian utzi, herrialdeko herri batzuen protagonismoa berreskuratu eta natur ingurune baliotsua ezagutarazten digu.

Harriaren bideak Ajarten du hasiera puntua. Trebiñuko herri hau garaiko harrobiei lotuta sortu zen, eta katedralako harri ederrenak, barruko aldea estaltzen duten harriek hain zuzen, hemen dute jatorria. Ibilbideak Ajarte eta katedrala lotzen ditu gurdibide, baso eta nekazaritza pistetatik zehar. Gasteizko Mendiak Parke Natural egitasmoaren eremua zeharkatzen da eta hiriko asfaltotik apenas 2 kilometro eskas zapaldu ondoren katedralera bertara iristen da. Goiz bakar batean.

Santa Maria Katedralera iristeko ordua 14:00ak eta 14:15 artean aurreikusten da.

Aholkuak:

- Mendiko botak eraman. Makila ere lagungarria izan daiteke.
- Hamarretakoa eraman.
- Ingurunearekin goza ezazu eta aurkitu duzun moduan utzi.

